

Xabier Auzmendi Remon

E maila • 3 aipamena

Ni Xabier naiz, 10 urte ditut eta Beasainen bizi naiz. Nere aitak Patxi eta Cristina dira eta arreba txiki bat daukat Ane, 5 hilabetekoa. Beasaingo La Salle San Jose ikastetxean nago LH5. mailan. Nere afizioak dira pelota eta futbola. Pelotan Murumendiko pelota taldean nago eta futbolean Beasaingo futbol eskolan.



PILOTAREN MISTERIOA

Orain dela urte asko gertatu zen, Beasain izeneko herri batean. Pilota gustokoa zuten bi lagunei.

Egunero ateratzen zuten pilotan jolasteko denbora, ikastolako etxeko lanak egin aurretik eta ondoren gelditzen ziren gustokoen zuten kirola egiteko. Mikelek eta Peiok elkarrekin jolasten zuten beti goiz, eguerdi eta atsalde. Beasaingo frontoi guztiak ezagutzen zituzten eta bertara gerturatzen ziren lekuko gizon eta emakumeak beraiei ere bai.

Beraien konturaz gainera pilota eskolan zeuden entrenatzen eta lan gogorra egiten zuten astean bitan.

Egun batean iritxi zitzaien txapelketa batean apuntatzeko adina eta urduritasuna mila aldiz handitu zen, benetako pilotari izateko ametsa martxan jarri zitzaien. Biak gainera bikote bezala jarri zituzten eta lehen asko jolasten bazuten... Pentsatu orain!!!

Frontoian zeuden beti, eta jende asko egun bat eta beste beraiei ikusten ere bai. Eskina batean ile horizko emakume bat egoten zen beti eta oso atentu begiratzen zituen.

Egun batean entrenatzen ari zirela, tanto bat zela eta ez zela hasi ziren Mikel eta Peio biak haserreturik bata besteari kulpaz botaz:

- Kanpora joan da pilota hori!!! - Esaten zuen Mikelek.

- Ez, ez da joan!!! - Erantzuten zuen Peiok berriz.

Halako batean konpondu zirenean pilotaren bila joan ziren eta pilota desagertu egin zen. Pilota zegoen lekuan ile mototx hori bat aurkitu zuten eta biak harriturik geratu ziren.

Hurrengo egunean nola ez, berriro entrenatzera joan ziren biak aurreko egunean desagertutako pilotari buruz hitzeginez. Hasi ziren pilotari emanez sake, ezker, eskuin, dejada, sotamano eta gantxo, hori zen sua!!! Gogor ematen pilotari. Eta nola ez... Iritsi zen liskarrerako beste aukera bat. Biak hasi ziren berriro ona, txarra, bai eta ez esanez. Halako batean konpondu ziren eta pilota hartzera joan zen Mikel, baina pilota ez zegoen gelditutako lekuan. Pilotaren ordeez berriro ile mototx horia eta Murumendi jartzen zuen papeltxo bat aurkitu zituen.

Peioren etxera joan ziren biak eta honen gurasoei kontatu zieten bi egunetan gertatu zitzaiena. Hauek harriturik entzuten zieten biei emandako azalpenak, ile mototx horia eta Murumendi ziren behin eta berriz errepikatzen zituzten hitzak .

Aitak entzundako azalpenekin zera esan zien:

Larunbat goiz honetan txango bat egin behar dugu paperean jartzen duen lekura eta Mariren koba erakutxiko dizuet.

Peioren aitak esan bezela joan ziren Murumendira eta Mariren koba ondora. Mikel eta Peio oso ausartak ziren eta aurretik zijoazten. Koba sarreran begira zeudela... hura sorpresa!!!.

Desagertutako bi pilotak zeuden harri baten gainean eta eskutitz bat zegoen ondoan. Bietako inor ez zen ausartzen pilotak hartzera eta aita iritsi zenean honek hartu zituen gauza guztiak.

Eskutitza ireki eta irakurri ere bai. Zera jartzen zuen...

Bi lagun gustoko kirol batean haserretzen badira ez da kirola.